



ORIOKODALA

Euskaraz
bizi-bizi

Epaimahaiaren agiria

Aurtengo EUSKARAZ GAZTE literatur lehiaketaren epaimahaia 2019ko azaroaren 27an elkartu zen Orioko kultur etxean. Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Karkara aldizkariko Eli Manterolak, Aiako Udaleko kultur teknikari Eli Lasak eta Orioko Udaleko euskara-teknikari Jabier Zabaletak.

Epaimahaiak nabarmendu nahi du aurten aspaldiko oparoena izan dela lehiaketara aurkeztutako lanen kopurua eta kalitatez ere ona izan dela aurtengo uzta. Horrek ondorio ekarri du, halaber, saritzeko moduko lanak geratzea saririk gabe. Aukeratu beharraren ajeak! Pozgarria da guretzat idatzi-zale oriotarrek gure lehiaketa hau aintzakotzat hartu eta beren lanak hemen aurkeztea.

Urtero bezala, Karkara aldizkariaren urtarrileko zenbakian publikatuko dira lan sarituak eta, hartara, Orioko eta Aiako etxe guztietara iritsiko dira.

Lehiaketara aurkeztutako lanak banan-banan aztertu ditu epaimahaiak eta, iritziak trukatu eta eztabaidatu ondoren, honako sariak ematea erabaki du:

Ipuin saila

«**Ipuin motza**» izeneko lanari eman diogu ipuin alorreko accesitetako bat. Ipuin hiperlaburren tradizioan egindako lana da, irakurleari harridura sortzeko pentsatua, eta ederki lortzen du hori. Ez diozu hasieran oso ondo hartzen tankera, baina, bukaeran, guztia argitzen denean, berriro gora joan eta bigarrenez irakurtzeko gogo sortzen dizu. 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu ipuin honekin Iona Rekartek. Datorrela jasotzera.



ORIOKOUNDALA

Euskaraz 
bizi-bizi

Alor honetako beste accesita «**Jota leiho izkinan eseri zen**» ipuinari eman diogu. Emakume gazte baten gorabeherak eta kezka existentzialak kontatzen ditu ipuinak: harremanak, lan-kontuak, bizitzaren metafora dirudien uso triste bat... Egileak badaki ipuina josten eta denbora-plano desberdinak konbinatzen nahasmendurik sortu gabe. Ezagun zaio ez dela idatzi duen lehen fikzio-lana eta hala da, lehiaketa honetan lehen ere irabazi izan du-eta saririk. Datorrela bere 100 euroko saria eta oroitagiria jasotzera: Libe Larrarte.

Ipuin alorreko hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Eskolako bidea**» ipuinari eman diogu. Ipuin bizia eta laburra da; egilearen marka da hori, nonbait, lehen ere saritu izan dizkiogu-eta ezaugarri horiek zituzten lanak lehiaketan honetan. Eskola-ume baten eta erretiratutako zientzialari baten arteko harremana du oinarri eta goxo garatzen du kontakizuna, alferreko apaindurarik gabe. Datorrela saria jasotzera Ane Etxabe.

Iñaki Iturainek irabazi du ipuin alorreko bigarren saria, 200 euro eta oroitagiria, «**Ibai, Itxaso eta olagarroa**» lanarekin. Anarriko arroketa gertatutako pasadizo bat azaltzen du egileak, hizkera eta kontaera egokiz. Egilea aspaldiko ezaguna dugu Orioko letretan eta badira urte batzuk fikzioa ere idazten hasi zela. Beti ahalegintzen da gure inguru hurbileko gaiak aukeratzen eta oraingoan ere halaxe egin du. Gustura irakurriko duzue aurtengo lan saritu hau ere. Etorri Iñaki, mesedez, saria jasotzera.

Aurtengo lehendabiziko saria, 300 euro eta oroitagiria, «**Kofradia**» izeneko ipuinak irabazi du. Egileak aitonari eskaini dion ipuinaren gaia ere gertu-gertukoa dugu: aurtengo urriaren 9an eraitsi zuten kofradiaren eraikin zaharraz ari da, haren eraisketak sortzen dizkion oroimen, gogoeta eta ezinegonez. Egoki uztartzen ditu oraingo eta aspaldiko kontuak eta lehen pertsonan kontatzen digu guztia, edozein oriotarrek ezagutzeko moduko erreferentzia ugari erabiliz. Polita da oso. Egileak ez zuen aspaldi lehiaketan parte hartu eta alde horretatik ere pozgarria zaigu sari hau ematea. Zorionak, Iñigo, asko duzu-eta ospatzeko egun hauetan. Sarituaren izena: Iñigo Gaiton.



ORIOKOUNDALA



Olerki eta bertso saila

Epaimahaiak «**Maitasuna eta pazientzia**» izeneko bertso-sortari eman dio olerki eta bertsoen saileko accesit bat. Ezagun du egileak ofizioa, etxeko eta herriko gorabeherak bertsoan kantatzeko. Lehen ere erakutsi izan du lehiaketa honetan eta oraingoan ere ale gogoangarriak utzi dizkigu: amari eskainitako bertsoa bikaina da, esaterako. Bertso-sorta honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Rosi Lazkanok.

Bigarren accesita «**Eta bazoaz, tipi-tapa**» olerkiari eman diogu. Bertso libreko olerki honetan bizi dugun garaiaren ezaugarri triste bat islatzen du egileak: beti gerokoari begira bizi gara, etorriko denaren esperantzari kateatuta. Egileak dioen bezala, «biharko edertasun irudikatuaren esne zaharra edaten, etengabe», begien aurrean dugun unean uneko errealitateari erreparatu ere egin gabe. Ondo ekarritako olerkia da, zer pentsa ematen dizuna. Olerki honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Josu Galdosek.

Olerki eta bertsoetako hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Kofradiari**» izeneko bertso-sortak irabazi du. Kofradiaren eraisketak sortu du ezinegona herritarren artean, aurtengo lehiaketan islatu dena. «Kultura baten ondare/bota dute, hala ere;/bertako xagu eta katuak/aterperik gabe daude» kantatzen du bertsolariak, Mikel Laboaren doinuan. Kantariak mina agertzen du herriak bizi duen aldaketaren aurrean eta egoki jasotzen du honela bukatzen diren bertso hauetan: «izan ginenaz ez da geratzen/oroitzapena besterik». Hunkigarriak dira bertsoak. Datorrela saria jasotzera Mikel Iruretagoiena.

200 euroko bigarren saria irabazi du «**Horiya**» izeneko bertso-sortak. Egileak ez zuen aspaldian parte hartu gure lehiaketan eta poztu gaitu aurten berriro animatu izana. Lan ederrarekin etorri da, gainera. Arrauneko gaiak beti gertutik eta orain gertuagotik segitu izan ditu eta horixe hartu du kantagai bertso-sorta honetan Xabier Sukiak. Herriko arraunzaleek gozatzeko moduko bertsoak osatu ditu Xabierrek,



ORIOKOUDALA



berezkoa duen graziarekin eta hizkuntzarekin jolas egiteko duen abilitadearekin. Etorri, faborez, saria jasotzera.

Aurtengo lehiaketaren lehen saria, olerki eta bertso-tako sailean, beste bertso-sorta batek irabazi du. «**Prefosta, lagün**» du izena hamaika bertso-sotak eta bertan udako oporrak kontatzen dizkigu egileak. Opor bereziak pasatu zituen Zuberoan, abuztuan, hango barnetegi batean zuberera ikasten, eta zorutzen etorri zen, Zuberoaz guztiz maiteminduta. Esperientzia bertsoan kontatu nahi izan du, bere esanetan, «herriko lagunak animatzeko beste horrenbeste egitera datorren udan». Bertso biziak dira, umoretsuak, eta esango genuke ondo betetzen dutela egilearen helburu hori. Bereak dira 300 euro eta oroitagiria. Egilearen izena: Garazi Urretabizkaia.

Orio, 2019ko abenduaren 3a.